IRURAKO UDALA **EUSKARAZKO WEBGUNEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.**	AYUNTAMIENTO DE IRURA **BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA PÁGINAS WEB EN EUSKERA.**
1. Dirulaguntzaren xedea. Dirulaguntza honen xedea da Irurako enpresa, merkataritza eta ostalaritzako edukiak euskaraz eta informazio teknologien bidez hedatzeko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak arautzea. Dirulaguntza hauen xedea da arestian aipatutako edozein alorretako erakunde eskatzaileari gastuak murriztea, Irurako berezko hizkuntzak dagokion lekua izan dezan hain garrantzitsua den teknologia berrien esparru honetan.	***1. Finalidad de la subvención.*** La finalidad de la presente subvención es la regulación de las condiciones para la concesión de subvenciones destinadas a la difusión en euskera y a través de tecnologías de la información, de los contenidos de carácter empresarial, comercial u hostelero de Irura. La finalidad de estas subvenciones es disminuir gastos a las entidades solicitantes de cualquiera de las áreas anteriormente mencionadas, para que la lengua propia de Irura ocupe el lugar que le corresponde en un ámbito tan importante como las nuevas tecnologías.
2. Onuradunak. Dirulaguntza honen onuradunak izango dira aipatutako esparruetan proiektuak edota informazioa euskaraz sustatzen eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, baldin eta egoitza sozial eta fiskala Iruran badute.	***2. Personas beneficiarias.*** Serán beneficiarias de la presente subvención, las personas físicas y jurídicas que fomenten proyectos e información en euskera en dichos ámbitos, siempre que tengan su sede social y fiscal en Irura.
3. Bete beharreko baldintzak. Dirulaguntza eskuratu nahi dutenek honako betebehar hauek bete beharko dituzte: — Testuek euskaraz egoki eta zuzen idatzita egon beharko dute. — Eduki horien barruan legeek babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du. — Webgunea egina izatea eta eskaera orrian helbidea jartzea Udalak ikuskatu ahal izateko. — Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak dira. — Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalarekikoak egunean izatea. — Irurako Udaleko jarduera-lizentzia indarrean izatea.	***3. Requisitos a cumplir.*** Para optar a la subvención, habrán de cumplir los siguientes requisitos: — Será imprescindible que los textos estén correctamente escritos en euskera. — Si dentro de los contenidos hay algún tema protegido por las leyes, la persona solicitante tendrá que tener el permiso pertinente sobre dichos contendidos. — La página web habrá de estar en marcha y en la solicitud se hará referencia a la dirección de la página para que el Ayuntamiento pueda acceder a la misma. — No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre. — Hallarse la corriente de las obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y con el Ayuntamiento. — Tener en vigor la licencia de actividad del Ayuntamiento de Irura.
4. Dirulaguntzen bateragarritasuna. 1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako dirulaguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak	***4. Compatibilidad de las ayudas.*** 1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma

izanda ere. 2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako dirulaguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearren, ematekoa den dirulaguntza murriztuko da oinarri hauen kargura.	finalidad. 2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.
5. Eskabideak eta dokumentazioa Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: — Eskaera-orria, behar bezala beteta. — Eskatzailearen Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko Kodea. — Faktura eta ordainketa-frogagiriak. — Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitorpena (eskabide-orriaren bidez). — Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria. — Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatearen gaineko aitorpena, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoari jarraiki (eskabide-orriaren bidez). — Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzen duten agiriak (baldin eta Udalari NISAE nodoaren bidez datu horiek egiaztatzeko baimena ukatzen bazaio eskabide-orrian). Irurako Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.	***5. Solicitudes y documentación.*** Se deberá presentar la siguiente documentación: — Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado. — Documento de Identidad o Código de Identificación Fiscal de la persona solicitante. — Factura y justificantes de pago. — Declaración jurada relativa a las subvenciones solicitadas a otras administraciones u otras instituciones públicas o privadas. También deberán declararse las subvenciones que ya se hayan recibido (mediante impreso de solicitud). — Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante. — Declaración de no hallarse incurso en ninguna prohibición de obtención de subvenciones, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre (mediante impreso de solicitud). — Documentos acreditativos de hallarse la corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (en caso de desautorizar al Ayuntamiento a que compruebe dichos datos a través del Nodo de NISAE). El Ayuntamiento de Irura mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elabora dos por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte. Horren ildotik, Irurako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu, dirulaguntza hau eskuratu ahal izateko, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez (NISAE): - Zerga betebeharrak egunean izatea. - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea. Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko. Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Irurako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango. Udalak berak egiaztatuko du eskatzailearen jarduera-lizentzia indarrean dagoen ala ez. Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesdunari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki. Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko. Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, dirulaguntza orok berekin duen iritziaren araberako izaera baitu dirulaguntza honek ere.	cualquier Administración. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas. En este sentido, el Ayuntamiento de Irura va a verificar los siguientes requisitos, para poder acceder a la subvención, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE: - Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias. - Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social. En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión. La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Irura, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención. El propio Ayuntamiento comprobará la vigencia de la licencia de actividad de la persona solicitante. Cuando se comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente. En cualquier caso, se podrá requerir a las personas solicitantes cuanta información complementaria resulta necesaria para valorar como es debido la ayuda solicitada. La presentación de solicitudes no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional inherente a toda subvención.
6. Eskabideak aurkezteko tokia eta epeak **Tokia**: Irurako Udaleko erregistro elektronikoan (www.irura.eus webgunean, *ON-LINE TRAMITEAK*)	***6. Lugar de presentación de solicitudes y plazos.*** **Lugar**: en el registro electrónico del Ayuntamiento de Irura (www.irura.eus, TRÁMITES ON-*LINE*) o

edo udaletxeko harrera bulegoan (San Migel plaza - 20271 Irura). **Epea:** urteko deialdian zehaztuko da eskabideak aurkezteko epea.	en la oficina de recepción del Ayuntamiento (San Migel plaza - 20271 Irura). **Plazo**: el plazo para presentar las solicitudes se detallará en la convocatoria anual.
7. Onartuko ez direnak. — Epez kanpo aurkezten diren eskabideak. — Oinarrien 3. puntuan exijitutakoa betetzen ez duten eskabideak. Halaber, honako webgune hauek baztertuko dira dirulaguntza emateko orduan: — Webgune pertsonalak. — Edozein erakunde publikori lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako webguneak. — Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkako edukia duten web orriak. — Beren edukietara sartzeko edozein muga jartzen duten web orriak edo zerbitzuaren truke ordainketa eskatzen dutenak. — Helburu berbererako lehendik dirulaguntza jaso duten web orriak.	***7. Exclusiones.*** — Las solicitudes que se presenten fuera de plazo. — Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 3 de las bases. Asimismo, serán rechazadas las siguientes páginas web a la hora de otorgar las subvenciones: — Páginas web personales. — Páginas web de empresas, grupos o sociedades que estén sujetos a cualquier ente público. — Aquellas páginas web cuyos contenidos sean insultantes o vayan en contra de los derechos de las personas. — Aquellas páginas web que limiten la entrada a sus contenidos, o que exijan un pago por sus servicios. — Aquellas páginas web que hayan recibido anteriormente una subvención por el mismo motivo.
8. Dirulaguntza emateko prozedura. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidez tramitatuko da. Dirulaguntzak Alkatetzaren Dekretu bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.	***8. Procedimiento de la concesión de la subvención.*** El procedimiento de concesión de subvenciones se tramitará a través del sistema de concurrencia competitiva. Las subvenciones se concederán mediante Decreto de Alcaldía, y para ello, existirá un plazo máximo de tres meses.
9. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Dirulaguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeko, alderdi hauek baloratuko dira: — Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak. — Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza. — Ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea. — Bisitari kopurua. Ondoko irizpide hauen arabera banatuko dira	***9. Cuantía de la subvención.*** Para la concesión de la subvención se tendrán en cuenta y se valorarán los siguientes aspectos: — Los medios destinados a la actualización continua de los contenidos de la página web. — Su elaboración formal y su diseño, además de su fácil utilización. — Ser apropiado para los que tienen alguna incapacidad. — Número de visitas. Las subvenciones responderán a los siguientes

dirulaguntzak: — Web orria euskara hutsez izateagatik, kostuaren %50eko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 450 eurotik gorakoa izango. — Web orriko hasiera orria euskara hutsean eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %40eko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 360 eurotik gorakoa izango. — Web orria euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %20ko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 180 eurotik gorakoa izango. Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du dirulaguntza hauek emateko dagokion partida eta kopurua. Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako dirulaguntza emateko bestekoa ez bada, dirulaguntzen onuradunen artean, dirulaguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.	criterios: — Se concederá una subvención del 50% del gasto por aquellas páginas web exclusivamente en euskera, con un máximo de 450 euros. — Se concederá una subvención del 40% del gasto por aquellas páginas web que tengan la página de entrada exclusivamente en euskera y lo demás en euskera y en otra lengua, con un máximo de 360 euros. — Se concederá una subvención del 20% del gasto por aquellas páginas web que sean en euskera y en otra lengua, con un máximo de 180 euros. El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida y consignación correspondientes a estas subvenciones. En el caso de que la consignación presupuestaria prevista para estas ayudas fuese insuficiente para responder a todas las solicitudes presentadas, se prorrateará entre todas las personas beneficiarias, del máximo global destinado a las ayudas.
10. Onuradunen betebeharrak. Honako hauek dira dirulaguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak: — Dirulaguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea. — Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da. — Irurako Udalari adierazi egin beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, beste dirulaguntzaren bat eskuratu al den. — Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebehar orokorrak bete beharko dituzte.	***10. Obligaciones de las personas beneficiarias.*** Las personas beneficiarias de la presente subvención deberán cumplir con las siguientes obligaciones: — Desarrollar la actividad y/u objetivos para los que se ha reconocido la subvención. — Utilizar la subvención para el concreto destino para la que ha sido concedida. — Comunicar al Ayuntamiento de Irura la solicitud u obtención de otras subvenciones que financien las acciones subvencionadas por éste. — Cumplir cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general en la normativa vigente para todos los receptores de ayudas o subvenciones.
11. Dirulaguntzen ordainketa. Dirulaguntzaren %100 ordainduko da, emateko erabakia hartzerakoan, ordainketa bakar batean.	***11. Pago de la subvención.*** El 100% de la subvención se abonará en un único pago en el momento de la resolución de concesión.
12. Dirulaguntza aldatzea. Dirulaguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta nolanahi ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagoka	***12. Modificación de la subvención.*** Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución

bidez laguntzak jasotzen badira, emakidari buruzko erabakia aldatu ahal izango da.	de la concesión de la ayuda.
13. Betebeharrak ez betetzea. Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluak eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.	***13. Incumplimiento.*** El incumplimiento de cualquiera de las condiciones que se prevén en la presente convocatoria por parte de las personas beneficiarias, conllevará la resolución o reducción de la subvención. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.
14. Interpretazioa. Irurako Udaleko Euskara Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.	***14. Interpretación.*** Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas Bases, será resuelta por la Comisión de Euskera del Ayuntamiento de Irura.
15. Ordezko araudia. Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.	***15. Normativa supletoria.*** En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.